

naturari, irribarria

guillermo azkarate
agustin amasorrain

BERGARA 2019. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Uztailaren 12tik 28ra • Del 12 al 28 de julio

ERAKUSKETA **EXPOSICIÓN**
Guillermo Azkarate eta Agustin Amasorrain

ARGAZKIAK **FOTOGRAFÍAS**
Guillermo Azkarate eta Agustin Amasorrain

LANKIDEA **COLABORADOR**
Juanjo Altuna

TESTUAK **TEXTOS**
Eskarne Mujika Gallastegi

KARTELAK **CARTELES**
Jon Andueza

MARKOAK **MARCOS**
Bibi Andueza

ANTOLATZAILEA **ORGANIZADOR**
Bergarako Udala *Ayuntamiento de Bergara*

INPRIMAKETA-EDIZIOA **IMPRESIÓN-EDICIÓN**
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA **EDICIÓN**
Bergarako Udala *Ayuntamiento de Bergara*

LEGE GORDAILUA **DEPÓSITO LEGAL**
SS-705-2019

NATURARI

Guillermo Azkarate-Askasua Barrutia
(Osintxu, 1948)

Naturari...

Izaki guztien Amari...

Berpiztu ohi den Izate Bakarrari...

Zuri, oi, Natura,

seme anonimo honen gorazarrea.

Betidanik izan dut gustuko argazkiak egitea.

Gogoan dut, gaztetan, nola joaten ginen Tourra ikustera, kamera kaxkar bat aldean hartuta. Benetan kaxkara: argazkiak egin ondoren, bota egiten zen; atera kontuak!

Gero, reflex kamerak etorri ziren. Eta urte dezente aurrerago, kamera digitala erabiltzen hasi nintzen, teknologiaren zabaltze eta merkatzeak eskuragarri egin zituztenean.

Argazki asko eta asko egin ditut bizitzan zehar, auskalo zenbat. Umeei, lagunei... zeri ez. Baina Naturari egindakoak ditut maiteenak, eta haien artetik kuttunenak, minimalistak.

Batzuek diote pertsonen ekintza guztiak indar aurkarien poderioz sortuak direla: hotza/beroa, ongia/gaizkia, gogorra/samurra...

Argitasuna eta iluntasuna dira nire argazki askoren oinarri eta muin, eta kontraste horretan sakontzen saiatu nahi nuke aurrerantzean ere.



Bergaran, 2019ko uztailean.



Negua 1



Negua 2



Formak



Landa



Orexako mendiak



Lainoa 2

IRRIBARRIA

Agustin Amasorrain Linazisoro

(Altos Hornos, 1950)

Denborarekin ohartu naiz irribarre batekin hasten dena ondo bukatzen dela.

Gauzak ondo irtetea gustatzen zaidanez, hasi dezadan hau ere irribarrez!

Argazkigintzarako zaletasuna era naturalean sortu zitzaidan; izan ere, mutikotan fotografo mordoa neukan inguruan: tio Txomin, lehengusu Xabier eta lehengusu Xasio, aita Emilio, tio Gurutz... Gainera, argazki-makinak ez ezik, laborategia ere eskura genuen.


Argazkiaren mundua oso bide aproposa da gauzak gogoratzeko. Nik neuk erreportaje tipokoa dut gustukoa, kolpean egindakoa. Horregatik, argazkiak ez ditut gertatzen; begien aurrean jartzen zaidana jasotzen dut. Eta, behin argazkia atera dudanean, dagoen moduan lagatzen dut, ukitutxorik egiteke.

Nire lagun batek esaten duen bezala, gauzak aurkitu egin behar dira, ez bilatu.

Hurbiltasuna lortze aldera, 50 (+20) mm-ko objektiboa erabiltzen dut sarritan, dena hobeto ikusten laguntzen dit eta. Erretratuaren kasuan, gainera, distantzia laburrak pertsonarekin komunikatzera behartzen nau, harekin hitz egitera, eta horixe da, niretzat, jolas honen gakoa.

Argazki-makina ezberdinak izan ondoren, konpaktu txiki bat erabiltzen dut orain; ez du pisurik apenas, eta erraz mugitzen da. Makina hori eta euskarri hanka bakarra (ezin esan tripodea denik!), horra ba nire ekipoa gaur egunean.

Aurrerantzean, baina, telefono modernoek zinema egiteko duten gaitasuna ere baliatu nahi nuke, bide berriak ezagutzeko eta, batez ere, jolasean segitzearren.



Bergaran, 2019ko uztailean.



Andramari, Urbia.



Jon Zabaleta marrazkilaria, Alzuza.



Ikaslea, Siem Reap-Kanbodia.



Buda, Phom Penh-Kanbodia.



Aingerua, Bartzelona.



Johannes Ttipia, Barkoxe-Ipar Euskal Herria.

naturari, irribarria

guillermo azkarate
agustin amasorrain

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
	18:00 - 20:30
igande eta jaiegunetan	12:00 - 14:00



AROZTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala